



7/

BARRUNDIAKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK SUSTATU ETA GARATZEKO DIRULAGUNTZAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Ordenantza hau egiteko erabili diren ahalmenak xedapen hauetan ematen zaizkio Udalari: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan, izan ere, bertan ezarrita dagoenez, udalek, euren interesak kudeatzeko, euren eskumeneko eremua mota guztietako jarduerak sustatu baititzakete eta bizilagunen beharrak eta nahiak asetzen laguntzen duten zerbitzu publikoak eskaini; Dirulaguntzei buruzko Legean eta Arautegian, Dirulaguntzei eta Laguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean eta Zerbitzuei buruzko Arautegian, xedapen horietan dirulaguntzak eta laguntzak emateko baldintzak eta prozedura ezartzen baitira.

I. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.- Ordenantza honen helburua dirulaguntzak emateko irizpideak eta prozedura egituratu eta finkatzea da Barrundiako udalerraren barruan, nekazaritza eta abeltzaintza sektorea sustatu eta garatzeko helburu batzuk zehazteko eta laguntza hauetaz herritar guztiak baldintza berberetan baliatzeko.

2. artikulua.- Udalbatzak udalaren kontura ematen duen eta ekonomikoki balioztatu daitekeen zuzeneko zein zeharkako edozein laguntza izango da dirulaguntza.

3. artikulua.- Dirulaguntzak emateko honako arau hauek hartuko dira kontuan:

1º.- Borondatezkoak eta aldi baterakoak izango dira, ordenantza honetan kontrakorik ezartzen ez bada.

2º.- Ezingo dira aldarrikatu aurrekari gisa.

3º.- Ezin izango dira izan, inolaz ere, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren oinarriaren ehuneko 3 baino handiagoak.

4º.- Ezin izango da dirulaguntza handitzeko edo berrikusteko eskatu.

5º.- Obraren aurrekontua 1.803,04 euro baino gehiago izan beharko da.

4. artikulua.- Dirulaguntzak liberalitate hutsez ematen dituzten erabakiak deusezak izango dira.

II. ESKATZAILEENTZAKO BALDINTZAK.

5. artikulua.- Honakoek eskatu ahalko dituzte dirulaguntzak:

a) Pertsona fisiko edo juridikoak. Pertsona fisikoak badira, jabeetako batek gutxienez udalerrri honetan erroladuta egon behar du eta bertan eduki behar du ohiko bizilekua, eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagotik gutxienez.

b) Nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera ogibide Nagusia izan behar da. Hori frogatzeko, norberaren konturako nekazarien Gizarte Segurantzako erregimen berezian edo nekazarian diharduten autonomoen erregimenean alta emanda egotearen agiria aurkeztuko da. Egoera hori laguntzarako eskabidea



aurkezten den momentuan eta laguntza ematen den momentuan frogatu beharko da. Aurkeztutako azkeneko errenta aitopenen gainean Foru Ogasunak egindako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Bertatik, ondorioztatu egin behar da eskatzailearen ohiko diru sarreraren ehuneko 50 baino gehiago nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueraren ustiapenetik datorrela.

c) Nekazaritzako ustiategien eta modu ofizialean ezarritako jardueren erregistroan inskribaturik egon beharko da, eta bereziki nekazaritzako familia ustiategien erregistroan, erakunde publiko eskudunek zehaztutako inguruabarren arabera.

Dirulaguntzak emateari dagokionez, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategia honela definituko da: titularrak, nekazaritzan ari dela enpresa moduan antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, funtsean merkatuko xedeak dituen, eta berez unitate tekniko-ekonomiko bat osatzen duena.

Honako hauek ez dira nekazaritzako ustiategizat joko:

- Nekazaritzako enpresa osagarriak, lurrik eduki gabe ere nekazaritzako produkzioan laguntzen dutenak nekazaritzako makinak lagata, edozein izanda ere kontratuaren mota, edota nekazaritzako ustiategietako erabili diren zerbitzuetako beste edozein eskainiz.

- Zaldiketarako edo lasterketarako zaldien ustiategiak, zaldien hazkuntzan dihardutenak izan ezik.

- Lorrerako edo lanerako abereen ustiategiak, hazkuntzan dihardutenak izan ezik.

- Txakurtegiak, animalia dendak, hiltegiak eta antzekoak.

- Mota guztietako parke zoologikoak, bai animaliak esparruetan dituztenak zein aske dituztenak, eta animalien erakusketak.

- Lagun egiteko animalien haztegiak.

- Arrain haztegiak.

d) Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi baten titular gisa lehen aldiz kokatzen diren 40 urtetik beherako pertsonak, ezin badute frogatu ustiategiak behar adina urte dituela eta baliabideen % 50 baino gehiago bertatik ateratzen dituztela, horren ordez frogatu ahaliko dute nekazaritzan bi urtetik gorako lanbide esperientzia dutela eta nekazaritzako enpresan sartzeko ikastaro trinkoa egin dutela, edo bestela kasuan kasuko nekazaritza jarduerari buruzko etengabeko prestakuntzako ikastaroa, gutxienez ere ehun eta berrogeita hamar ikastordukoa.

e) Eskatzaileek ezin izango dute zorrik izan Herri administrazioetan, antzeko erakundeetan eta dagozkien aprobetxamenduak arautzen dituztenetan; hau da, zerga betebeharrak, kanonak eta kuotak ordainduta eduki behar dituzte; bestela, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso.

e) Dirulaguntza edo laguntza nekazariaren edo abeltzaintzaren ohiko etxebizitza eraikitzeke erabiltzen denean, honako hau ere frogatu beharko da:

- Etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezin baten jabe ez izatea.

- Dirulaguntzaren xede den etxebizitza, 15 urteko epean, ohiko etxebizitza izango dutela eta ez dutela besterenduko agindu beharko dute, eta konpromiso hori bete ezean dirulaguntza itzuli beharko dute.



III. DIRUZ LAGUNTZEKO MODUKO JARDUERAK.

6. artikulua.- Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan hobekuntzak edo eraikin berria egiteko obrak diruz lagundu daitezke, udalerrian bertan eginez gero, bai eta ohiko etxebizitzaren eraikuntza ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan titularrena baldin bada.

7. artikulua.- Ez dira diruz laguntzeko modukoak izango:

- a) Udalerraren lurralde esparrutik kanpo egiten diren jarduerak.
- b) Funtzionamendu gastuak (alokairua, telefonoa, argia, eta abar).
- c) Ondasun higigarriak eta higiezinak erostea.
- d) Instalazioak erostea.

IV. ESKABIDEAK EGITEKO PROZEDURA.

8. artikulua.- Dirulaguntzaren xede diren jardunei erantzuteko, Barrundiako Udalak, bere aurrekontu baliabideen arabera, zenbateko jakin bat kontsignatuko du aurrekontuetan urtero.

9. artikulua . Aurreko 5. artikuluan aipatzen diren eskatzaileek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- a) Banakako eskabidea, dirulaguntza zein obratarako eta zein jarduerarako eskatzen den zehazturik.
- b) Obra proiektua eta egin beharreko lanen aurrekontu banakatua, obretarako udal lizentzia lortzeko behar denaren arabera.
- c) Errolda agiria eta gutxienez bi urtean udalerrria ohiko bizilekua izan dela frogatzeko agiria.
- d) Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien erregistroaren ziurtagiria eta Gizarte Segurantzarena, 5. artikuluan aipatutakoak.
- e) Foru Ogasunaren ziurtagiria, diru sarrera arrunten % 50 baino gehiago nekazaritza edo abeltzaintzako jardueratik ateratzen direla dioena.
- d) Etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezin baten jabe ez izatearen frogagiria dirulaguntzaren xedea etxebizitza eraikitzea denean.

10. artikulua.-

Eskabidea aurkezteko epeari dagokionez, obra lizentziarako eskabidearekin batera aurkeztuko da dirulaguntzarako eskabidea, edo bestela, obra lizentzia ematen edo eskatzen denetik hasita sei hilabeteko epean, betiere obrak amaitu gabe badaude.

V. DIRULAGUNTZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

11. artikulua.- Udalaren osoko bilkurak finkatzen dituen irizpide berriazkoz gain, honako irizpideak oinarritzkoak izango dira dirulaguntzak emateko.

- a) Jarduerak nekazaritzaren ikuspuntutik nolako interesa duen.
- b) Aurrera jarraitzeko zailtasunak dituzten nekazaritza ustiategiei laguntzen zaien.

12. artikulua.-



1. Udaleko informazio batzorde orokorrak eskabideak aztertu eta ebazpen proposamena egingo du. Ebazpena egin aurretik, ea nahikoa kreditu badagoen zehaztuko du Funtsen Kontu Hartzailetzak txosten batean, eta udal teknikariak obrak hirigintzako araudiarekin bat datozen eta obra lizentziaren baldintzak betetzen dituzten aztertuko du beste txosten batean.

2. Ebazteko eskumena duen organoa Udaleko alkatea izango da.

VI. ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

13. artikulua.- Diruz lagundutako jarduerak bukatuta eduki beharko dira hirigintzako lizentzian obrak amaitzeko ezarritako epea bukatu aurretik.

14. artikulua.- Dirulaguntza guztiak baldintza hauen pean emango dira: egindako obrak bat etortzea udalerriko hirigintzako legearekin, eta jarduera ezarri eta irekitzeko lizentzia eskuratu ahal izateko ingurumen arloko legerian araututako prozedura bete behar duten jarduerak legeztatzea.

15. artikulua.- Emandako dirulaguntzen helburua ezin izango da aldatu.

16. artikulua.- Jarduera baterako dirulaguntza eskatze hutsak ordenantza honetan eta emakida arautzen duten oinarrietan zer jartzen duen jakitea eta onartzea dakar berarekin.

17. artikulua.- Ordenantza honetan jasotako betebeharrak eta erabakiak ez betetzeak dirulaguntza bertan behera uztea ekarriko du.

VII. JUSTIFIKAZIOA ETA KOBRANTZA.

18. artikulua.- Ordenantza honen xedapenen arabera emandako dirulaguntzak jasotzeko, diruz lagundutako jarduera burutu behar da, bai eta udaletxean honako agiri hauek aurkeztu ere.

a) Dirulaguntza ordaintzeko eskaera. Alkateari bidaliko zaio, eta transferentzia zein kontu korrontean egin behar den adieraziko da.

b) Obra proiektua aurkeztea lizentzia lortzeko beharrezkoa izan denean, obraren azken egiaztapena eta jardueraren espedientean finkatzen diren neurri zuzentzaileak (halakorik badago) aurkeztu beharko dira.

c) Obrak proiektuaren beharrik ez badu, faktura aurkeztu beharko da.

19. artikulua.- Aurreko artikuluan aipatutako fakturek honelakoak bete beharko dituzte:

a) Jatorrizkoa izatea edo idazkariak konpultsatutako fotokopia.

b) Data; dirulaguntza eman den urtekoa izan behar da.

c) Dirulaguntza jaso duenaren NAN aedo identifikazio fiskaleko zenbakia.

d) Enpresa hornitzailearen zigilua eta izenpea edukitzea.

e) Eskaera egiterakoan aurkeztutako aurrekontuarekin bat etortzea.

20. artikulua.- Obra edo jarduera egin eta handik hogeita hamar egun igaro aurretik aurkeztu behar da 18. artikuluan aipatu den dokumentazio justifikagarria, eta onarpena eta ordainketa egitea alkateari egokituko zaio. Alkateak dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu dezake, gastuak hasieran kalkulaturakoak baino txikiagoak badira.



ARAUBIDE IRAGANKORRA.

21. artikulua. Ordenantza honek indarra hartzen duenean indarririk gabe geratuko da 2005eko abenduaren 16ko ALHAOn argitaratu zena.

Ordenantza honek indarra hartu aurretik aurkeztutako dirulaguntza eskaerak lehengo ordenantzako araei jarraituz ebatziko dira, betiere, obrak egiteko hirigintza lizentzietan ezarritako epeak betetzen badira.

Indargabetu beharreko ordenantzaren 11. artikuluan ezarritako epean aurkezten diren eskaerak ordenantza horretako araei jarraituz ebatziko dira, betiere honako ordenantza honek indarra hartzen duenetik hiru hilabete igaro baino lehen aurkezten badira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek indarra hartuko du Udalak hura behin betiko onartu eta testu osoa ALHAOn argitaratzen denean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritako epea igaro eta gero.

Ozaetan, 2019ko azaroaren 26an

IDAZKARIAK



Jon Txopitea Zugadi